

1/98 IRIZPENA**IRAILAREN 16KOA ETA GIZARTE ONGIZATEAREN EUSKAL KONTSEILUAREN
OSAERARI ETA FUNTZIONAMENDU ARAUDIARI BURUZKOA DEN 204/1997 DEKRETUA
ALDARAZTEKO DEKRETU-PROIEKTUARI BURUZKO IRIZPENA**

Ekainaren 27ko 9/1997 Legeak Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari eratzikitako eskumenekin eta haren Funtzionamendu Araudian ezarritako prozedurarekin bat etorririk, eta Osoko Bilkurak 1998ko uztailaren 1eko akordioaren bitartez eskuordetuta, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Batzorde Iraunkorrak, 1998ko uztailaren 22ko bileran, **aho batez** honako hau onetsi du:

IRIZPENA**1.- AURREKOAK**

1998ko ekainaren 24an sartu zen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren idazkia. Idazki horren bitartez, sail horrek irailaren 16koa eta Gizarte Ongizatearen Euskal Kontseiluaren osaerari eta funtzionamendu araudiari buruzkoa den 204/1997 Dekretua aldarazteko Dekretu-proiektuari buruzko txostena eskatu zuen, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ekainaren 27ko 9/1997 Legearen 3.1.b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorririk.

Dekretu-proiektu horrek urriaren 18ko eta Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 16. artikulua du oinarri. Lege horren bitartez, Gizarte Ongizatearen Euskal Kontseilua eratu zen. Hori gero garatu zuen irailaren 16ko 204/1997 Dekretuak.

Berehala bidali zitzaien Dekretu-proiektuaren kopia Kontseiluaren Osoko Bilkuraren kide guztiei, zertarako-eta haiek beharrezko Batzorde Iraunkorrari edo Lan Batzordeari egoki zeritzeten iritzi eta proposamenak bidaltzeko, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamendu Araudian ezarritakoaren arabera.

1998ko ekainaren 29an sartu zen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren idazkia. Idazki horren bitartez, sail horrek irailaren 16ko 204/1997 Dekretua aldarazteko Dekretu-proiektuaren kopia berria bidali zuen. Aurreko testuarekiko funtsezko aldakuntza Aurreproiektuetako lehenengoari begirako beste artikulua bat sartzeari zegokion.

1998ko uztailaren 1ean eman zitzaien Dekretu-proiektuaren kopia Kontseiluaren Osoko Bilkurako kideei.

Halaber, 1998ko uztailaren 1ean Kontseiluaren Osoko Bilkurak beharrezko txostena onesteko ahalmena Batzorde Iraunkorrari eskuordetzea erabaki zuen. Era berean, aipatutako Dekretuei buruzko iritzi eta proposamenak aurkezteko epea Osoko Bilkuraren kide guztientzat uztailaren 8a arte zabaltzea erabaki zuen, Dekretu-proiektu berria sartua den data kontutan harturik.

1998ko uztailaren 15ean lan-bilerara bildu zen Gizarte Garapenerako Batzordea. Irizpen-proposamena egin zuen. Proposamen hori Batzorde Iraunkorrari bidali zitzaion eta batzorde iraunkor honek, 1998ko uztailaren 22ko bileran, hura aho batez onetsi zuen.

II.- EDUKIA

Gizarte Ongizatearen Euskal Kontseiluaren osaerari eta funtzionamendu araudiari buruzko 204/1997 Dekretua aldarazteko dekretu-proiektuaren bigarren testuak honakook ditu osagai: zioak erakustea, hamabi artikulua eta Bukaerako Xedapena.

Zioak erakustea:

Aurretiko erakusketara bilduta dago Gizarte Ongizatearen Euskal Kontseiluarekin berau eratu denetik lotutako legeria (urriaren 18koa eta Gizarte Zerbitzuei buruzkoa den 5/1996 Legearen 16. artikulua), baita beraren geroko garapena (irailaren 16ko 204/1997 Dekretua) ere.

Halaber, bertan adierazita dago nola ezarri duen maiatzaren 22koa eta gizarte bazterketaren kontrakoa den 12/1998 Legeak bere Hirugarren Xedapen Gehigarrian 5/1996 Legearen 16.1 artikulua idazketa berria. Hori dela eta, nabatmen aldarazi dira Gizarte Ongizatearen Euskal Kontseiluaren osaera eta funtzionamendu araudia. Zentzu horretan, erakusketa horretan aipatuta dagoenez, irailaren 16ko 204/1997 Dekretuak ez zuen enpresa-erakundeen eta kooperatiben Batzorde Iraunkorreko ordezkariarik. Batzorde iraunkor hori Gizarte Ongizatearen Euskal Kontseilurena da. Hori dela eta, hiru mahaikide sartu dira EHAEko enpresa-elkarteen izenean; eta mahaikide bat, Euskadiko Kooperatiben Konfederakundearen izenean.

Beste alde batetik, bertan adierazita dagoenez, Kontseiluaren osaerak, urriaren 18ko 6/1996 Legearen arabera, parekidea izan behar du Herri Administrazioen eta erakunde sindikalen, enpresa-erakundeen, gizarte-erabiltzaile borondatezkoen eta gizarte zerbitzuan lan egiten duten profesionalen ordezkarietan. Horregatik, eta Gizarte Ongizatearen Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkuran beste gizarte ordezkari batzuk sartu direla eta, doikuntzak egin behar dira: Herri Administrazioen organo horretako ordezkari gehitu behar da. Hori dela eta, Autonomia Erkidegoaren hiru ordezkari gehiago daude.

Halaber, bertan adierazita dagoenez, Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren Gizarte Arazoetarako sailburuordeak parte hartu behar du. Ordezkaritza hori ez dago Dekretuaren aurreko idazketan. Izan ere, Sailburuordetza hori Gizarte Ongizatearen Euskal Kontseiluaren osaera itxuratu eta gero sortu zen.

Azkenik, bertan adierazita dagoenez, berrikuntza aldarazpen teknikoak sartzeko probetxatu da, zertarako-eta aurreko testuan idatzitakoa hobetzeko.

Artikuluak eta xedapenak:

Lehenengo artikuluan, irailaren 16ko 204/1997 Dekretuaren 3. artikuluko 1. ahapaldian idatzitakoa aldatu da: enpresa-erakundeek Kontseiluaren Osoko Bilkuran duten ordezkariak sartu da.

Bigarren artikuluan, irailaren 16ko 204/1997 Dekretuaren 3. artikuluko 2. ahapaldiko a) atalean idatzitakoa aldatu da: Osoko Bilkuraren osaera sartu dira Herri Administrazioen aldetiko Gizarte Arazoetarako sailburuordea (lehendakariorde bezala jardungo duena) eta hiru ordezkari gehiago: mahaikide bat, garapenerako lankidetzaren Sail eskudunaren izenean; mahaikide bat, Giza Eskubideen gaiko Sail eskudunaren izenean; eta mahaikide bat droga-menpekotasunaren gaiko Sail eskudunaren izenean.

Hirugarren artikuluan berriro idatzi da irailaren 16ko 204/1997 Dekretuaren 3. artikuluko 2. ahapaldiko b) atala: enpresa-erakundeak sartu dira Osoko Bilkuraren osaeran.

Laugarren artikuluan berriro idatzi da irailaren 16ko 204/1997 Dekretuaren 3. artikuluko 2. ahapaldiko b) ataleko 14. zenbakiko tartekadura. Tartekadura horretan aipatuta dago Erakunde eta Konfederakunde Sindikalen ordezkariak.

Bosgarren artikuluan 14. zenbakiko tartekadura gehitu dio irailaren 16ko 204/1997 Dekretuaren 3. artikuluko 2. ahapaldiko b) atalari: Osoko Bilkuraren osaera hiru mahaikide sartu ditu, Enpresa-elkarteen izenekoak.

Seigarren artikuluan 15. zenbakiko tartekadura gehitu dio irailaren 16ko 204/1997 Dekretuaren 3. artikuluko 2. ahapaldiko b) atalari: Osoko Bilkuraren osaera mahaikide bat sartu du, Euskadiko Kooperatiben Konfederakundearen izenekoak.

Zazpigarren artikuluan, berriro idatzi da irailaren 16ko 204/1997 Dekretuaren 4. artikuluko d) letra: enpresa-erakundeak sartu dira mahaikideak izendatzeko sistematikaren garapenean.

Zortzigarren artikuluan, berriro idatzi da irailaren 16ko 204/1997 Dekretuaren 8. artikuluan izenburua: Batzorde Iraunkor batzuen existentzia nabarmendu da artikulua pluralizatuz.

Bederatzigarren artikuluan, berriro idatzi da irailaren 16ko 204/1997 Dekretuaren 8. artikuluko 1. ahapaldiko e) atala: artikulua horrek enpresa-erakundeen ordezkariak sartu ditu Batzorde Iraunkorren osaeran.

Hamargarren artikuluan, berriro idatzi da irailaren 16ko 204/1997 Dekretuaren 11. artikuluan 3. ahapaldia: Batzorde Iraunkor batzuen existentzia sartuta dago.

Hamaikagarren artikuluan, berriro idatzi da irailaren 16ko 204/1997 Dekretuaren 14. artikulua: Batzorde Iraunkor batzuen existentzia sartuta dago.

Hamabigarren artikuluan, berriro idatzi da irailaren 16ko 204/1997 Dekretuaren 15. artikulua. Bertan nabarmenduta dagoenez, Gizarte Ongizatearen Euskal Kontseiluaren eta beronen Batzordeen bileretara joateak dietak eta kalteordainak jasotzeko eskubidea emango du.

Azkenik, Bukaerako Xedapen Bakarrean aipatuta dagoenaren arabera, indarrean jarriko den eguna Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denaren biharmuna izango da.

III.- OHARRAK

Dekretu-proiektuaren 5. artikulua

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak beharrezkotzat jo du aldarazpenari buruzko Dekretu-proiektuan aipatuta dagoen 14. tartekadurara bildutako ordezkarietako aldarazpena. **LAU (4) mahaikide egongo dira Euskal Autonomia Erkidegoko Enpresa-elkarteen ordezkari bezala.** Izan ere, Dekretu-proiektuan proposatutako idazketak ez du Gizarte Agenteen ordezkarietza parekidea errespetatzen. Era berean, Euskal EEGAB delakoak uste du ezen ez dela zentzuduna Enpresa-erakundeen Batzorde Iraunkorreko ordezkari kopurua (lau ordezkari) Osoko Bilkurakoa (hiru) baino handiagoa izatea.

Dekretu-proiektuaren 9. artikulua

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak beharrezkotzat jo du Batzorde Iraunkor Eskuordetuaren osaerako aldarazpena. **SEI (6) izango dira erakunde sindikalen, enpresa-erakundeen, pertsona erabiltzaileen, gizarte-bolondresen eta profesionalen mahaikide ordezkariak.** Ordezkari batek ordezkarietza dituen Kooperatibak eta Enpresa-erakundeak. Era berean, eta Batzordean ordezkarietza parekidea egon dadin, uste da ezen **Administrazioak BI (2) mahaikide ordezkari gehiago izan behar dituela.**

Artikulatu berria sartzea

Beste alde batetik, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak beharrezkotzat jo du artikulatu berria sartzea, lau puntutara bilduta dagoenaren arabera. Lau puntu horiek honakook dira:

1. Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak beharrezkotzat jo du 204/97 Dekretuaren 3. artikuluan 2. ahapaldiko b) atalean idatzitakoan hobekuntza teknikoa sartzea proposatu gura du, zehazki, 14. tartekaduran: "aplikatzeko arau orokorraren arabera"-ren ordezkarietza **"Legearen ezarritakoarekin bat etorririk"** jarri beharra dagoela dio.
2. Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak beharrezkotzat jo du 204/97 Dekretuaren 3. artikuluan b) ataleko 11. zenbakia berriro idaztea: *"Kontsumitzaileen Federazio edo Elkarteen izeneko mahaikide bat"* **barik "Kontsumitzaileen Federazio edo Elkarteen izeneko mahaikide bat, jarduteko eremua Euskal Herriko Autonomia Erkidego osoa duena"** jarri beharra dagoela dio. Kontsumitzaileen Erakundeen ordezkarietza ordezkarietza-organo egokiak bildu beharko du.
3. Euskal EEGAB delakoak nabarmendu duenez, ez dago irailaren 16ko 204/1997 Dekretuaren 7. artikuluan izenburua aldarazteko proposamenik. Testu berria idazteko orduan irizpide homogeenari eutsi beharrik berekin dakarrenez, komenigarria da organoaren pluralizazioan ezarritako irizpideari eustea. Hori dela eta, hark beharrezkotzat jo du **"Batzorde Iraunkorraren funtzioak eta araubidea"**-ren ordezkarietza **"Batzorde Iraunkorren funtzioak eta araubidea"** jartzea.

4. Zentzu berean, eta Dekretua teknikoki behar bezala doitzeko, Euskal EEGAB delakoak 204/97 Dekretuaren 11. artikulua 2. ahapaldia berriro idaztea proposatu gura du, "Batzerde Iraunkorra eta Batzerde Teknikoak, beraien buruek deialdia egin ostean, Kontseiluaren Araudiak finkatutako moduan bilduko dira"-ren ordezt **"Batzerde Iraunkorrak eta Batzerde Tekniko Espezializatuak, beraien buruek deialdia egin ostean, Kontseiluaren Araudiak finkatutako moduan bilduko dira"** jartzea alegia.

IV.- ONDORIOAK

Kontsulta-organoa den Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzerdeak Gizarte Ongizatearen Euskal Kontseiluaren osaerari eta funtzionamendu araudiari buruzko Dekretua aldarazteko Dekretu-proiektuaren tramitazioa egokietsi du.

Bilbon, 1998ko uztailaren 22an

OE Burua,

Javier Mongelos Oquiñena

Idazkari nagusia,

Javier Hernández Bilbao